

DraftMe funtzionatzeko, hainbat kosta nagusi daude kontuan hartu behar direnak. Hauek dira gure negozio-ereduaren oinarriak:

1. Teknologia eta garapena: webgunea eta aplikazioa sortu eta mantentzeko gastuak. Softwarearen eguneratzeak eta segurtasuna ere sartzen dira. Hau da gure kostu nagusia.
2. Ekipamendu fisikoa: ordenagailuak, mugikorrak eta beste ekipamendu batzuk garapen eta laguntza teknikorako behar ditugu.
3. Langileen soldata: teknologia, marketina eta bezeroarentzako arreta kudeatzen duten langileak ordaindu behar dira. Langileen kostua funtsezkoa da plataforma ondo martxan egoteko.
4. Marketina eta sustapena: sare sozialak, influencer-ak, iragarkiak eta bestelako promozio-kanpainak erabiltzaile berriak erakartzeko.
5. Administrazioa eta bestelako gastuak: banku-maileguak, lege kontuak, domeinuak, marka eta logoa sortzea eta bestelako gastu txikiak sartzen dira hemen.

Laburbilduz, DraftMe-ren kostuen egitura honela dago: teknologia, ekipamendu fisikoa, langileen soldata, marketina eta administrazio gastuak. Hasierako urteetan kostuak altuak dira, baina hurrengo urteetan erabiltzaile gehiago iristen direnean, irabaziak handitzen dira eta proiektua jasangarria bihurtzen da.